

Errementari Museoa inaugurauko dau Udalak Zeberion

12. orrialdea

Zeanuriko txistularien 50. urteurreneko kontzertua 16an

Bagilaren 16an, iluntzeko 20:00etan kontzertua eskeiniko dabe Zeanuriko txistulariak euren 50. urteurrena ospatuteko. Eureka, Mikel Urdangarin, Ne-rea Zuloaga, Esti eta Olatz, Gontzal Mendibil, Kepa Junkera, Zeanuriko korua eta Luis Iruarizaga Abesbatza egongo dira, beste batzuen artean. 13. orrialdea



Mari Carmen Gartzia eta Youness Assehi irabazle Maratoi Txikian

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

298

2018ko bagilaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Bedia, Ubide, Arantzazu eta Dimako jaietarako prest

Bedia eta Ubideko herriko jaiak sanjuanak dira eta Arantzazu eta Dimakoak sanpedroak.



U da jaiobarriaren bariku eta zapatuetako gauak batez be, kontzertuak eta erromeriak animauko ditue. Besteak beste, Bedian, MC Ziztada eta Governors egongo dira; Ubiden, Duluth; Arantzazun Hesian eta Trikizio, eta Diman, Zirkirik bez, Houston pub, Sutan eta Los zopilotes txirriaos.

Herri guztietan lehiaketa gastronomikoak egongo dira eta kirola ez da faltauko. Ubiden, basotik arbol bat ekarri eta plazan altxauko dabe. 5. eta 7. orrialdeak

Arratiak itzel erantzun eban giza katean

G ure Esku Dagok bagilaren 10ean antolatutako giza kateak sano erantzun ona izan eban Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Bertan herriarren %6k hartu eban parte antolatzaileen arabera eta Arratian, horren bikotxa mobidu zirala dinoe. 101 kilometroan egondako Areatza, Artea eta Zeanuriko Gure Esku Dagok balorazioa egin dau. 4. orrialdea



Argazkia: Oriol Fernandez.

ARRATIA

Sanjuanak eta sanpedroak auzuneetan

San Juan bezperan, bagilaren 23an, suak biztuko dabez Arratiako hainbat auzune eta plazatan, udako solstizioko gau laburra ospatzeko: Arantzazun, Areatzako Zubizarran, Arteako Santamañen, Diman, Igorreko San Juan auzunean eta Lemoako Tallerretan, barbarako.

Gainera, Igorreko San Juan auzunean, Dimako Oban, eta Zeanuriko Altzuagan, sanjuanak auzoko jaiak dira eta bi edo hiru egunetako jai egitarauak antolatu dabez. Auzuneotan, sardina jana, bola jokoa edo bertsolariak ez dira faltauko.

Sanpedroak Lemoako Elorriagan eta Zeanuriko Undurragan ospatuko dabez. Undurragan frontoi bat ipiniko dabe jaietan, eskupelota txapelketea jokatu ahal izateko. 7. orrialdea

ARRATIA

Errogatibea eta bere sinboloak

Arratiako Eleizak antolatuta, hainbat arratiar joaten dira urtero Urkiolara erromes, oinez zein autobusez, errogatibea dala-eta. Jose Mari Kortazar abadeak, errogatibea Arratiako kultur ondare ez materialtzat dauka. Beste kultura eta sasoiatiko erromesaldiak loturea dauka eta lau elementutan oinarritutako sinbologia: bidea, arbola, mendia eta ura dira sinbolo horreek. Sinbolo horreetatik abiatuta erromesaldien gaineko historia bat dakargu. 8. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
bagila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

ARRATIA

Eraso sexista bako jaiak helburu

Jaietan eraso sexistarik egon ez daiten, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak kanpaina abiatu dau. Taberna, txosna eta beste leku batzuetan eskuorri bi egongo dira: mutilentzako gida feministea, eta neskentzako autodefensa feministarako aholkuak. Herrietako andra talde eta talde feministak be egingo dabez eraso sexisten kontrako kanpainak, AUMkoa lagunduten, zein euren propioa aurrera erooten. 9. orrialdea

M. Jose zure arropa
94 631 90 08
GALANTA
Zu janzteko prest. Eta zu prest zagoz?
Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es
www.facecook.com/galanta.lenceria

ARRATIA KOLOREETAN

IZAN URA, LAGUN!

Publizidadeko iragarki ezagun baten Bruce Leek berba horreek esaten ebazan, dana aldatu egiten dala eta aldaketari egokitu egin behar gatzakozala esateko.

Oin, Arratia Koloreetan sailari agur esateko ordua heldu jaku, eta espazio honetan beste sail bateri ekingo deusagu udan. Arratiako errekeak legez, urak legez, jario egingo dau sail barriak. Edo kolpatu.

Beraz, urte bete t'ardi honetan, Arratia Koloreetan sailean parte hartu daben alkarteai eskerrak emotea baino ez jaku geratzen. Honeek izan dira, sail honetan

euren barri emon deuskuen Arratiako 16 alkarteak: Abizarie Elkartea, Arantzarte Dantza Taldea, Areatzako Banda, Areatzako Kultur eta Kirol Batzordea (AKKB), Arginatx Mendi Elkartea, Arratia Futbol Taldea, Arteako Kirol Kultur eta Euskara Taldea (AKKT), Austarri Korta Kultur Elkartea, Ganzabal Mendi Taldea, Harriketarrak Gazte Asanbladea, Joko Alai Kirol Elkartea, Mazala Andra Taldea, Tiritu Kultur Elkartea, Txumuluxueta Kultur eta Kirol Alkartea, Ubideko Goikogana jubiladuen alkarte eta Zaztapparrak Asti Taldea. Eskerrik asko danoi.

BEGITU Aldizkaria



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 11tik 17ra

Rodriguez Martinez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 18tik 24ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 25etik garagarri. 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Euskaldunak, iberiarrak eta beste

Gontzal, lagun, jakin beharko zeunke mundu akademikoan, unibersidadean esaterako, ez dogula ezelango dogmarik ezartzen, ziurtasun zientifikoa baino. Horrek, besteak beste zientzia eta sasi-zientzia bereizten laguntzen deusku. Areago, gurea ez da zientzia-fikzioa egitea. Horregaitik, euskerearen jatorriaren gaineko hainbat eta hainbat proposamen, hipotesi eta aurrereti, suabe-suabe esanda, sano dudazkoak dirala deritxagu. Ezin da edonor etorri gura dauan proposamenagaz eta pentsetea, beste barik ustezko erudikzinoz jantzita dagoalako, zientzia munduaren ikuspegitik onargarria dala. Zelan bestela? Bata gai da erakusteko euskerea Europako hizkuntzen ama dala, bestea iberiera dala, beste bat blasto-feniziera, hangoa sardiniera zaharragaz hartuena daukala, eta ez da faltauko gaskoieratik eratorriko hizkuntza dala esango dauanik. Ez da Larregitxo? Sano erratuta zagoz, Gontzal, uste badozu mundu akademikoan ez dogula kriteriorik, ezta esperientziarik be, ebazteko zer dan bide zientifiko onargarria. Horretarako

metodo zientifikoa baino ez da aplikau behar: datuen harira hipotesia formulau, eta ostean frogatu behar da. Hori bera, datu eta bide berberakaz emoitza berberara planetaren beste aldean dagoan zientzilaria ailegetan bada, orduan zuzena da, orduan bakarrik. Filologia karrerako lehenengo kursoan dagoan ikasleak be badakie. Vascoiberismoa deritxan kontua adibide polita da ikusteko zelan historiografia kaskarrak izoratu leiken baleko ikerlerro bat. Berau, aspalditxo, ez-longo funtsarik ez eukan ideologia hutsa izan zan, gero, datuak agertu ahala, ideologia horregaz enkajetako ahaleginak baino ez dira egin; hau da, zientzia bideak erakusten dauanaren kontrakoa. Ezin da ustezko emoitza batetik datuetara joan, datuetatik emoitza baino. Nork esan deutsu zuri, esaterako, "Abar-ke-bi" (ustez iberiera bada), "(h)amabi" zenbakia dala? Eta zelan dakizu gure gaurko "(h)amabi" zenbakiagaz hartuena daukala? Edota "hamabi" zelan esaten zan euskera zaharrean? Antzeko itxura daukielako? Horixe da arazoa, pentsetea, berben itxureari erreparauz, euskera modernoak argitu leikela edozein paleohizkuntza ulertezin errakuntza ikaragarria da. Horretarako, baina, bide bakarra

dago, daukaguzan datu apurrakaz antxinako hizkuntzen balizko "protohizkuntzak" eregitea da, eta ostea, euren artean alderatu; eta oindino urrun samar gagoz ezer lortzeatik. Beraz, bitartean, jakin ikerketa bidea ez dala inoz bigarren eskuko datu parrastada norberaren gogara erabiltea, ezta frogaezinak diran hipotesi hutsak egia berdadero gisa aurkeztea be, edota handik eta hemendik *ad hoc* hartutako eta enkajetako ikerbide dudazkoak baliatzea. Horrek iruzurretik nahiketxo dauka, Gontzal. Hori bai, sasi-zientziak behar dauan jantzi dirdiratsuz apainduta; ezpabere, zelan iruntzi kongresu xeble horreetako "adituek" lasai asko esandakoa? Gainera, lehen esan lez, horreek adituok ezin esan originalak diranik, oin dala bostehun urte hasitako ibilbide antzu bateri eusten deutsielako. Gaurko hizkuntzalaritzak aspaldian dauka gaindituta antigualeko kontu zahar hori.

ALVARO RABELLI

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Suete



Baserrietan zein pisuetan janariak prestatuteko egoten dan espazioari suete esaten jako. Batuan, sukalde da. Arratia eskualdearen ingurumarietan beste era honeetara be esaten da: ezkaratz, ezkatz, subate, subete, sugete, suite edo sute (sútea, Igorren; subétia, Ubiden; suíte, Zeanurin). Antxinako etxe zaharretan suetea tximinia bakoa zan, sutegia gelaren erdian egoten zalako.

ERETXIA



SORAYA LIZUNDIA

Gu be bai runners

Maratoi txikia nik neuk irabazi neban

Igorreko jaietako pregoirako emakumea eta kirola izan da Jai Batzordeko proposamena eta andra kirolariak balkoira igotera be konbidau egin dauz. Batzuk igon gara baina asko falta izan dirala konsziente gara. Batzuk eroso ez dagoalako euren burua erakusten, nire lagun batek esaten dauan moduan genero lotsak eraginda akaso; beste batzuek euren burua kirolaritzat ez daukielako, kirol talde bateko partaideak ez diralako edo-eta kompetizionetan parte hartzean ez dabelako.

Ha-ta guzti be, adin desbardineta andrak ikusi ahal izan genduzan udaletxeko balkoi bietan eta hori polita eta hunkigarria izan zan.

Era informalean kirola praktikatzen dabenean andra asko dago eta pregoian esaten dan moduan errazoi desbardinengaitik praktikatzen dabe, osasungarria dalako bai osasun fisikorako zein osasun mentalerako, autoestimua areagotzen edo handitzen laguntzen daualako, lagunak egitea errazten daualako, etxetik atera eta norberarentzako espazioa eta denporea eskuratzeko atxakia ederra dalako...

Lehiatsuak ez gara gehienok, edo bai maila desbardinetan, baina aukera emon ezker parte-hartzaileak bai, bagara. Zer esan gura dodan horregaz? Ba andra askok parte hartuko leukiela kirol probetan gaitasun desbardinetarako aukerak emongo baleutseez. Bizikleta martxak adibidez, gaitasun handiko txirrindularientzako

baino ez dirala antolatzen esaten dabe andra batzuek eta horrek euren parte hartzea eragozten edo oztopatzen dau.

Gu be bai runners taldea be aitatzen da pregoian eta talde horretako bultzatzaile eta partaide legez nire bizipenak konpartidu gura dodaz. Euskeraz gu be galapari edo korrikalari izango litzateke ekimenaren izena, baina ingelesez esateko joera dago eta... tira, egunen baten buelta bat emongo deusagu horri be. Oin dala 4 urte hasi zan proiektu horretan hiru talde planteetan ziran, oinezkoa, oinez-korrikakoa, eta korrikakoa. Helburua gaitasun desbardineta hasita, korrika egin ahal izatea ahalbidetzea edo laguntzea zan. Ni oinez-korrika taldean hasi nintzan eta 10 minutu ibili ostean, minutu bat korrika egiten genduan hasikeran. Nire bizitzako minuturik luzeena izaten zala esan behar dot.

Nire aurrerapenak ikusita eta taldeko kideak animauta, aurten Arratiako 39. Maratoi Txikian parte hartzea ebatzi neban eta eguraldiak lagundu ez baeban be, ze, kriston sargoria egin eban, amaitu egin neban. Eta amaitu neban, taldeko kide batek bere karrerarako pentsauta eukan estrategia, niri laguntzearen, aldatu egin ebalako. Erritmoa mantenduz edo egokituz, denpora guztian animauz, orpoai pegauta neroian kotxe eskobearen motor hotsak egiten dauan presinoa aitzutea lortuz momentu batzuetan.

Talde lanean oinarritzen dan beste kirolerlan planteetan dan estrategia, gaitasun handiko kirolariari laguntzeko zuzenduta dago. Gure kasuan alderantzizkoa izan da.

Horregaitik, klasifikazioan atzenengo postuan agertu nizan arren irabazle sentiduten naz. Irabazi dot autoestimuan, baita apaltasunean be; hau da, amaitzeko gai izan naz baina laguntza barik ez neukean lortuko. Horretarako be balio dau taldeak.

Eta pregoiko amaierea kopiatu kirolak ez daukala ez adinik ezta generorik be, esaten dot nik neuk be.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatua
Batzen gaita

MONDRAGON

LUMATUTEN

JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Amalur

Gure bizitza, bizia dan aldetik, ez dago geldi eta Heraklito filosofoak esan ebanez, *panta rei*, hau da, dana mugitzen da. Horregaitik, joanean joaneango bizitzan berba batzuk zaharkitu egiten jakuz eta barriak sortzean doguz leku-denporetara egokituz eta asimilauz. Berba barriotako bat "amalur" dogu. Berba horrek 50 urte bete deuskuz aurten. Izan be, 1968an Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxeak, *Tierra madre/Amalur* izeneko pelikula-dokumental ederra aurkeztu euskuen Donostiako Nazinoarteko Zinemaldian. Film horren izenburu elebiduna ikusita, euskerarako itzulpena txarto eginda dagoala konturaturako gara. Itzulpen zuzenak "Lur ama" izan beharko leuke, ama, lurra barik, lurra dalako naturearen ama. Argitasun hau emonda be, mende erdiko berba barri hau edur-bola bat lez

etorri jaku handitzen-handitzen eta andrazko izen izatera etortez gainera, batzuentzat, euskal mitologiako jainkosa kategoriaraino be heldu da. Memoria historikoa geroago eta laburragoa dan sasoi honetan, ondo legoke iturrietara jotea argitasun bila moda barriai aurre egiteko. Izan be, "amalur" berbearen kasuan badaukaguz euki be iturriak hizkuntzaren ispiluan begiratu eta aztertzeko bere nondik norakoa. Besteak beste, aikor On Jose Miguel Barandiaranen *Diccionario ilustrado de mitología vasca* (Bilbo 1972) liburu eder eta oinarrikoa. Hitzegi mitologiko horretan "amalur" berbea ez da agertu be egiten, "Lur" bai, ostera, Eguzki eta Ilargiaren ama legez. Horregaitik ba, gaurko neo-mitologo batzuk hobeto begiratu beharko leukie euskerearen historiako espiluan, berba baktxaren jatorria eta historia ezetuteko, erabilten hasi baino lehen. Oinarri sendo bako modari jarraitu ezkerok okerrak egiteko arriskua daukagu eta okerrak, erraz egin eta nekez zuzentzen dira. Ez dakit atzera bueltarik izango dauan aitatu dodan asunto honek, baina argitasun hau emotea beharrezkoa dala uste dot, esakereak dinoan lez, "egiak bide bakarra daualako". Etorkizunearn, "denporeak agertuko deusku edurra mendian!".

ZERTZEAN

ANGEL LARREA
BEOBIDE

Orduña

Bidaiari, ez ahaztu Orduña, aspaldiko laguna, orduko ibilaldi luzean aurkitu zintudan! Ezta lozorro sakon-sakonean ere ez nuke ahaztuko gaztaroko gogoeta hura!

Haitzeko Ama, hodei sendoen azpian agertuta, mendizerraren beso borobilen artean jesarrita, iraganeko nostalgiaren itsasoan murgilduta, egin bisitatxo bat Antiguako Andre Mariari!

Hiriko pasealekuko zumardiek Gaztelakoak dirudite, udazken goiztiarraren aire koloreztatua. Arbieton, ibarreko sahasak, haize freskoaren firfira, eta kanposantuko ibilbidetik, isiltasuna. Poesiaz, eskola-umez eta txoriez beteriko etorbideak, Antonio Machado poeta handiaren gustukoak.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerok, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bagileko giza katea: herria eregiteko zuztarra. "Itzela", "herriak berba egin dau", edo antzeko esaldiak entzuten genduzan domekan Gure Esku Dagok antolatutako giza kate erraldoi honen barrutik.

Erabakitze eskubideak demokrazia handitzen dau, jenteari bide guztiak zabaltzen deusazalako eta gizar-te parte hartzaileago eregiten daualako. Hau ez da pose bat, ez da inkesta bat. Hau errealidadea da.

Itzela dalako mobilizazioa bera, 201,9 kilometro jentez betetea ez dalako inoz lortu Euskal Herrian. Hau ez da alkarretaratze bat edo manifestazioa zerbaisten kontra. Ezta ibilbide baten barruan egiten dana. Mobilizazio moduan eraikitzailea da, zerbaisten alde egiten da, guztion onerako, horregaitik pensionistak, feministak, gazteak, Athletic, alderdietako edo sindikatuetakoa personak egon ziran. Batzuek "transbersala" deitu eben, beste batzuek "gizarte zibila", eta danok "herria" esaten dogu.

Itzela be 175.000 esku alkar lotuta, alkartuta egon diralako. Oilo ipurdia ipinten zan guztion energiak bat egin ziralako, Buenos Aireseko haizeagaz eta La Basuren bideoklipagaz, nagusien iribarreak eta Arteako Rosa ikusita. Danon bizipoza transmitiduten.

Mobidu ginanok %6 gara Euskal Herrian. Hau da, Frantziako estaduan bardina eginda ia-ia 4 miloe persona mobidu beharko ziran. Baina Arratian, horren bikotxa mobidu ginan. Beraz, poztekoa alde guztietatik.

Hedabideen tratamendua ezin hobea izan zan: TVE 24an lehenengo albistea izan zan eta 3 minutu eskeini eutsien; TVE 1 en, bardin; Antena 3an hasikerako notizia, minutu t'erdi, Cuatro-n antzean, ETBn, BBCn, The New York Times-en, Rai News-en, Libération-en eta beste 100 telebistatan munduan zehar euren agendetan sartu eben.

Eta itzela be Euskal Herria osoan burututako Herritarron Ituna egin dalako. Aurreko asteetan 2019 errazoi desbardin batu diralako Legebiltzarraren eskuetan ipinteko. Kamisetak, zapiak eta oihalak zorientasuna adierazoten dabe. Aldi berean danontzako herri libre bat eregiteko errazoiak. Ezin aitzu atzenengo hileotan hain garesti dagoana, eguzkia, egun horretan be geugaz egon zala. Danoi eskerrak eta ohore bat izan da Gure Esku Dagoren giza kate honetan parte hartzea. Jarraitu daigun herria eregiten!

101 kilometroa (Zeanuri, Areatza, Artea). Gure Esku Dago



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilategi Zerbait 101
R.P.S. 21/06

www.arteak.com

- Berezi gaitzara
- Laguntza psikologikoa
- Logopedia
- Fisioterapia
- Fukomunikazioa
- Laneri arazoak
- eta abar gaitzara

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

DIMA

Eskalada irakasteko Dimako alkarteak botako dau jaiak hasikerea emoteko txupina

San Pedro egunaren bezperan arrastiko zazpiretan botako dabe txupina, baina jai eguerdian hasiko da umeentzako tailerrakaz eta frontoian eskaladea egiteko aukereagaz.

Erredakzinoa

Eguenetik domekara arte, kontzertuak, erromeriak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta kuadrillen arteko lehiaketak, umorea eta ondo pasetako aukerak ipiniko dabez. Kirolai jagokienean, eskaladea nabarmendu gura izan dabe aurten. Izan be, Diman eskaladarako leku onak dagoz,

eskalada egiten irakasten dauan alkarte bat be bai, eta Espainiako txapelduna Itziar Zabala be dimoztarra da.

Bagilak 28, eguena

12:00etan, umeentzako tailerrak eta serigrafia (bakotzak bere kamisetara ekarri).

17:30ean, eskaladea danontzat frontoi handian.

18:30ean, Pintxo Txapelketea ume eta gazteentzat.

19:00etan, txupina Ilunbe boulderra alkartearen eskutik. Jantzak Gaztebarri taldeak.

20:00etan, Tortilla eta Tostada Lehiaketea.

22:30ean, erromeria: Zirkinik bez eta DJ Moziolo.

Bagilak 29, barikua

12:00etan, San Pedro mezea.

13:00etan, 85 urtekoai omenaldia. Ostean jubiladuentzako bazkaria.

17:30ean, Talentu Lehiaketea.

18:00etan, Antxo eta Pantxa pailazoak.

19:00etan, Lasto Botatze Txapelketea.

21:00etan, esku pelota partidua eta plazako IV. Txapelketako finala.

22:30ean, Jantza-Play-backa.

23:30ean, kontzertuak: Houston pub, Sutan eta DJ Ibon.

Bagilak 30, zapatua

11:30ean, duatloia.

13:00etan, Otxote Muñatones.

17:00etan, puzgarriak.

18:00etan, Dimako pelota eskolako finalak.

19:00etan, Zaratak 18 elektrotxaranga. Bitartean, kuadrillen arteko jolasak eta buruhandiak.

22:00etan, kontzertua: Rockovers.

24:00etan, euskal errepresaliaduen giza eskubideen aldeko ekitaldia.

00:30ean, kontzertua: Los zopilotes txirriaos.

02:00etan, erromeria: Akerbeltz.

Garagarrilak 1, domekea

11:00etan, Patinajea, molto... ginkanea frontoi handian.

12:00etan, goitibera jeitsiera herrikoia plazan.

13:00etan, Sagardole runba taldea.

14:30ean, Paella Lehiaketea. Ondoren, herri bazkaria, paella jana eta kantaldia, Kantu bat gara taldeagaz batera.

18:30ean, bertsolariak: Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Miren Artetxe. Gai jartzailea: Amaia Aurrekoetxea. Jaietako zozketea.

20:30ean, antzerkia: *Ez dok hiru* (Patxo Telleria eta Mikel Martinez).

21:30ean, kuadrillen agurra eta txokolata.



BEDIA

Sua eta kontzertuak San Juan bezperako gauan

Erredakzinoa

San Juan bezperako gauerdian biztuko dabe sua Bedian, gau laburra argitzeko. Horixe da sanjuanetako momenturik bereziena, baina ez bakarra. Izan be, bost egunetako jai egitaraua prestatu dabe Bedian. Sua biztuteko orduari jantzan etxongo deusie bediazarrak eta hurreratutakoak MC Zitzada eta Governors taldeen kontzertuakaz.

Erromeriak be ez dira faltauko. Barikuan, Lehian taldea egongo da; zapatuan, Gauargi eta Oxabi, eta domekan Jokaldi.

Horrezaz gainera lehiaketa gastronomikoak, karta-joko lehiaketak, pelota partidua, umeentzako puzgarriak eta beste hainbat ekitaldi egongo dira.

Bagilak 17, domekea

10:00etatik **14:30**era, XVIII. Eskulangintza eta elikagaien azokea.

12:00etan, Arratia kantuz.

14:00etan, Bediako jubiladuen bazkaria.

Bagilak 22, barikua

20:00etan, jai hasikerako pregoia eta txupinazoa trikitiaz alaituta. Sardina jana.

21:00etan, Jauziri Bediako jantza taldea.

22:00etan, herri afaria.

23:30ean, erromeria Lehian taldeagaz. Tartean Play-backa.

Bagilak 23, zapatua

12:00etan, Paella Lehiaketarako izen emotea.

14:00etan, Paellak aurkeztu.

16:30ean, erromeria Gauargi taldeagaz.

17:00etan, bazkalosteko "Bingo kantuz kantu".

17:00etan, Mus Txapelketea Bartzokiak antolatuta.

17:00etan, umeentzako tailerrak.

20:00etan, IX. Igel Txapelketea Laguntasuna tabernak antolatuta.

22:30ean, kontzertuak: MC Zitzada eta Governors taldeak; errome-

ria Oxabi taldeagaz. **24:00**etan, San Juan sua. Etxera bueltetako autobusak **02:30**etan eta **05:00**etan.

Bagilak 24, domekea

San Juan eguna

11:00etan, meza nagusia.

12:00etan, Bediako pelota eskolako paleta: neska nagusiak. Eskupe-lota: mutil nagusiak.

12:00etan, pote eta pintxo txosnetan.

12:00etan, antxinako auto eta motorren erakusketea.

15:00etan, II. Bediako Slaloma, Club Automovilistico Bizkaia antolatuta, San Lorenzo poligonoan.

18:00etan, bertso saioa.

19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

Bagilak 25, astelehena

12:00etatik **13:30**era, puzgarriak eta jokoak.

16:30etik **19:30**era, puzgarriak, jokoak eta bitsa.

17:00etan, XXXIII. Briska Txapelketea. (Bikotekide bat behintzat, Bediako).

18:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen emotea.

20:00etan, tortillak aurkeztu.

20:30ean, txokolata jaiak amaiera emoteko.



IGORRE

Igorreko jaietako bigarren astegoiena ekintzaz betea

Erredakzioa

Igorreko jaiak ez dira amaitu eta oindino ondo pasetako aukeraz betetako egun eta gauak geratzen dira. Akelarregaz Igorreko txosnaguneko karpeak gainezka egin eta gero, bigarren astegoienean be jente asko aurreikusten da. Aiko hemen, bigarren astegoien honetako egitaraua.

Bagilak 14, eguena

17:00etan, umeen Play-backa Kultur Etxeko plazan. Euria bada txosnagunean.

18:00etan, Arratiako Musika Eskolaren emonaldia Kultur Etxean (lehenengo emonaldia).

18:30ean, USBpoteoa txosnagunean hasita.

19:30ean, Arratiako Musika Eskolaren emonaldia Kultur Etxean (bigarren emonaldia).

21:00etan, herri afaria txosnagunean. Mozorro gaia: munduko jantzak. Tiketak, Gau Loran eta Arratiko Zekorrak Rugby Tabernan. Ondoren "Bingo gaupaseroa" trasteriakaz.

Bagilak 15, barikua

11:00etan, Inazio Zubizarreta Herri Ikastetxeko triatloia.

17:00etan, Tortilla eta Makailao Txapelketea txosnagune ondoko landan. Eguraldia txarra bada txosnagunean.

18:30ean, tortillen aurkezpena.

19:00etan, makailaoen aurkezpena.

19:30ean, Havana 537, mojitoak eta musika kubatarra, txosnagune

ondoko landan.

21:00etan, Matraka elektrotxarangea.

23:30ean, kontzertuak: MG eta Oxabi.

Bagilak 16, zapatua

10:00etan, Kadeteen txirrindulari lasterketea.

11:00etan, Rugby inklusiboa 105eko Rugby Zelaian.

12:00etan, serigrafia tailerra Torontilegaz Kultur Etxeko parkean.

17:30ean, pelota partiduak Goiko Plazako frontoian. Eguraldia txarra bada kiroldegian.

Markel Basilio eta Ibai Cimadevilla vs Gutierrez eta Villanova.

Agirre eta O. Etxebarria vs Mikel Goñi eta Otxandorena.

17:30ean, Umore Rallya txosnagunean hasita.

18:30ean, Ein GO Kantan eta Dantzan taldeagaz kantu poteoa AZ Rugby Tabernan hasita.

23:00etan, kontzertuak: Zeinke, Gozategi eta DJ Isma.

Bagilak 17, domekea

13:00etan, Areatzako Banda.

14:45ean, jubiladuen bazkaria eskoletako aterpean.

19:30ean, jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketetako sari banaketea Kultur Etxeko parkean. Eguraldia txarra bada txosnagunean.

Jarraian, Jokaldi AMEren eskutik Kultur Etxeko parkean. Eguraldia txarra bada txosnagunean. Bitartean, Kuadrillen olinpiaden sari banaketea. Amaituteko, txokolatea.

ZEANURI

Udal bulego barriak eta irisgarriagoak zabaldu ditue

Erredakzioa

Herritar guztientzako irisgarritasuna bermatu guran, Zeanuriko

Udalak lokala erosi eta bulego barriak zabaldu ditu udaletxe parkean. Guztira 160 metro karratu inguru dira eta bertan, harrera



ARANTZAZU/DIMA

UEMAk onartu eban Arantzazuren eskaria

Erredakzioa

Maiatzaren 26an Diman egindako Batzar Nagusian UEMAK (Udalari Euskaldunen Mankomunidadea) Arantzazuren sartzeko eskaria onartu eban.

Arantzazuk 394 biztanle ditu eta herriko euskaldunen indizea %76 da. Dana dala, aspaldian erabilereak behera egin dau eta horrek kezka sortu dau udalerrian. "Horren aurrean neurri batzuk hartzea proposatu genduan. Neurrien artean egokiena UEMAn sartzea zala pentsatu genduan" adierazo deutso BEGITU Igor Menika Arantzazuko alkateak. Martiaren 13an ebatzi eban Arantzazu UEMAn sartzea eta maiatzaren 26an, UEMA Egunean sartu zan. Oin, Arantzazu, Areatza, Artea, Dima eta Igorre dagoz mankomunidade honetan.

UEMA Eguna

Diman egindako Udalari Euskaldunen Eguneko Batzar Nagusian ehun bat alkate eta zinegotzi egon ziran eta udal barri bi onartu ebezan: Arantzazu eta Bakio.



Ibon Iza, Amets Jauregizar, Josu Labaka, Igor Menika, Nekane Intxaurtza, Amaia Jugo eta Nekane Zuazo.

lekua, udal adiministrariaren bulegoa, aguazilarena, alkatearena eta biltegiak dagoz.

Udaletxeko bulegoak danontzako irisgarri egitea gatxa eta garestia zan. "Han igongailua ipini behar zan eta bulegoak moldatu. Eta udaletxeak daukan egiturea-gaitik ez da erraza" azaldu deutso BEGITU Eider Ajuriagerra zinegotziak. Gainera, garestia zan eta lokalak erosita be, gastua antzekoa izan da. Eusebio Larrazabal alkatearen arabera, "Hangoa moldatutea 300.000 euro ziran, eta 110 bat metro karratu dagoz. Hemen barriz, 300.000 euro eskas urten dau, lonjak erosita. Eta 160 metro inguru dagoz".

Udaletxeak erabilera instituzionala mantenduko dau; bertan udal batzak eta abar egiten jarraituko ditue. Eta beste erabilera batzuk be emoteko asmoa agertu dabe udal ordezkariak.

Horreekaz 87 udalerrik osotuten dabe UEMA oin. Eguerdiko ekitaldian, Josu Labaka UEMAKo lehendakariak, udalari euskaldunen babesa eta garapena aldarrikatu eban. Nekane Intxaurtza Dimako alkateak eta Abizaria alkatetako kideak be egin eban berba.

Ekitaldia amaitutakoan, jai giroak hartu eban Dima: Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariak, Areatzako batukadeak eta gaueko kontzertuak alaitu eban eguna.

ARRATIA

Arratiako Koruak batutako dirua emon deusie Caritaseri

Erredakzioa



Maiatzaren 30ean, Arratiako Koruko ordezkariak, 5.000 euro emon eutsien Caritaseri. Dira hau, 2018ko Agate Deunaren bezperan batutakoa da. Arratiako Koruak, Caritasen bitartez "beharrizan handiena daukienai lagundutea" gura dau.

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARANTZAZU



Igazko txupina.

Hesian eta Trikizio taldeak animauko dabe San Pedro eguneko gaua

Erredakzioa

Arantzazuko jaietako txupina Juanti Meniak botako dau bagilaren 29an, 19:00etan, baina jaigiroa lehenagotik sumatuko da herrian. Egun horretan izango dira kontzerturik garrantzitsuenak, Hesian eta Trikizio taldeen eskutik. Hurrengo egunean, paella eta tortillen usainak, herritarrak batuko ditu giro ederrean. Domekan barriz, pelota jaialdia aitatu behar da. Patri Espinar, Kolonbian 2017an jokatu zan munduko txapelduna eta Amaia Alday, Olatz Arizabalaga eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra neurtuko dira.

Bagilak 28, eguena

19:00etan, Mallabiko Jasokunde Abesbatza eta umeen abesbatzak eleizan. Lagunen artean (Mallabia) eta Maiztegi Herri Eskolearen Abesbatza (Iurreta).

Bagilak 29, barikua

12:30ean, mezea.
14:00etan, jubiladuentzako ko-



paua plazan. Eguraldi txarra egin ezker, frontoian.

18:00etan, Areatzako batukadea plazan.

19:00etan, txupinazoa eta pregoia. Buruhandiak eta batukadea.

20:00etan, Larrain dantza.

20:30ean, Futbolin Txapelketea Herriko Tabernan.

23:00etan, Hesian eta Trikizio taldeen kontzertuak. (Etxera bueltetako autobusa 03:30ean).

Bagilak 30, zapatua

12:00etan, Mus Txapelketea Herriko Tabernan.

12:30ean, Txinga eroate eta Igel Txapelketea plazan.

14:30ean, Paella eta Tortilla Txapelketak plazan.

18:00etan, Play-backa plazan.

19:00etan, Mus Txapelketako finalak.

21:30ean, Bidean taldeagaz erromeria eta pijama jai.

Garagarrilak 1, domekea

10:30ean, mezea.

10:30etik 13:30era, puzgarriak frontoian.

13:00etan, frontoiko aparkalekuan bits festa.

16:30ean, pelota jaialdia.

Eskupelotea:

Umeak: Aburto-Delgado (Arantzazu) vs Eguzkiza-Etxebarria (Igorre). Nagusiak: Patri Espinar-Amaia Alday vs Olatz Arizabalaga-Maite Ruiz de Larramendi.

Palea:

Gazteak: Arana-Anton (Arantzazu) vs Salzedo-Castañeda (Zaratamo).

18:30ean, ginkana orienting herri-tik zehar.

19:30ean, bingoa eta txokolatea plazan.

UBIDE

Arbola ipiniko dabe plazan sanjuanetan

Erredakzioa

Tradizinoari eutsiz, aurten be arbolen bila joango dira basora Ubideko herritarrak, gero arbola plazan altxau eta bertan egongo da jaietan. Sua be biztuko dabe San Juan bezperan ilundu bezain laster, 22:00etan, eta ondoren kontzertua eta erromeria egongo dira.

Bagilak 22, barikua

17:30ean, arbolen bila.

19:00etan, arbola altxau plazan. Ondoren, herri afaria frontoian. Menua: patatak errioxar erera, solomoa

piper gorriakaz eta hostore-pastela. Edateko: ardaa, ura eta kafea. 15 euro, umeak 12. Izena Jubiladuentan edo Batzokian emon behar da bagilaren 17a baino lehen.

23:00etan, erromeria Parrapas taldeagaz.

Bagilak 23, zapatua

12:30ean, herri kirolak.

18:00etan, Ubideko umeen zirkua.

19:30ean, triki-pintxo-poteoa txosnatik.

22:00etan, San Juan sua.

Ondoren kontzertua Duluth taldeagaz eta erromeria Joxpagaz.



Bagilak 24, domekea

10:30ean, puzgarriak.

12:30ean, kopaua eta Big Band taldea.

18:00etan, pelota partiduak.

ARRATIA

Sanjuanak eta sanpedroak auzuneetan be ospatuko dira

Erredakzioa

Beste leku askotan legez, Arratian be suak biztuten dira San Juan bezperako gauean udako solstizioa ospatuteko. Bedian eta Ubiden sanjuanetan izaten dira herriko jaiak eta herri horreetan plazan biztuko dabez suak. Jaietako ezinbesteko jarduerak da. Baina Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin be biztuko dabez suak eta herritarrak inguruan batuko dira, gauari eta bizitzari magia apur bat emon guran.

Arantzazun, sua 22:30ean biztuko dabe, baina etxonaldia arintzeko-edo, 20:30ean sardina jana egingo dabe plazan. Areatzan, 21:00etan batuko dira billaroztarrak sardinak eta urdaia jateko eta ondoren 22:15ean, Zirkozaurre konpainiaren *Akelarre* ikuskizuna egongo da plazan, 23:00etan sua biztuko dabe Zubizarran. Artean, Santamañen da hitzordua.

Igorreko San Juan azunean, Dimako Oban eta Zeanuriko Altxuagan be sanjuanak ospatuko dabez. Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

Altxuaga (Zeanuri)

Bagilak 23, zapatua

21:00etan, sardina jana, txokolatea eta San Juan sua. Ondoren musikea eta trikitaliak.

Bagilak 24, domekea

12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

12:45ean, bertsolariak eta zozketea.

13:15ean, jantzariak.

18:30ean, bola jokoa eta umeentzako jolasak.

San Juan (Igorre)

Bagilak 22, barikua

19:00etan, txupinazoa. Ondoren, Kantu Lehiaketea eta pintxo potea.

22:00etan, erromeria Joselu anaiak taldeagaz.

Bagilak 23, zapatua

18:30ean, sardina jana, Ardoa barrura fanfarriagaz eta trikitaliakaz.

22:00etan, San Juan sua.



22:30ean, su artifizialak.

Bagilak 24, domekea

12:00etan, mezea eta trikitaliak.

Undurraga (Zeanuri)

Bagilak 29, barikua

11:00etan, mezea eta Aitor Mendiluze bertsolaria. Ondoren barauskarria.

18:30ean, herri kirolak.

21:00etan, auzo afaria. Ostein DJ Zirkin Txatonean.

Bagilak 30, Zapatua

11:00etan, Tortilla Txapelketea. Ondoren, auzo bazkaria Txatonean.

13:00etan, Undurragako frontoiaren inaugurazioa.

17:00etan, Eskupelota Txapelketako kanporaketak.

20:30ean, txixiburduntzia eta jarraian erromeria Divercion taldeagaz.

Garagarrilak 1, domekea

11:00etan, mezea. Ondoren, txistulariak eta barauskarria.

13:30ean, poteoa Txatonean eta Igel Jaurtiketa Txapelketea.

17:00etan, umeentzako puzgarriak eta Txapel Jaurtiketa Txapelketea.

18:00etan, Pelota Txapelketako finalak eta sari banaketea.

20:00etan, zozketea eta jaien amaierak txokolateagaz.

ERROGATIBAK

Errogatiba bideak

Arratiako kultur ondare ez-materialaren erakusgarri doguz errogatibak. Ohitura honek bere inguruan batzean ditu Arratiako herri guztiak. Baina ezin ulertu beste kultura eta sasoi desbardinatiko erromesaldietatik aparte. Erreportaje honetan lau sinbolotan sakonduko dogu: bidea, arbolea, mendia eta ura.

Jose Mari Kortazar

Errogatibea eta bidea

Bidea egiteko hamaika errazoi dago. Batzuetan negozio bategatik egiten dogu bidea. Besteetan hitzordu bat dogulako, inoz errekaduak egiten, edota altxorren bila. Erromesaren asmoak beste-lakok dira. "Zeharo bestelakoaren" bila doa erromesa. Jainkotasunaren arrastoaren bila. Jainkotasunaren argi izpien atzetik.

Latineraz *peregrinus*, bere lehen esangura ibiltaria edo atzeritarra zan. XI. gizaldira arte ez da asumitzen esangura sakratuaren bila dabilanaren ibiltariagaz.

Bide hau egitea, desbardinaren bila ibiltea, kristautasunaren aurretikoa da. Bere arrastoak dagoz haizuloetan, Carnaceko menhirretan, antxinako Mesopotamian (ziggurat izeneko eraikinak zerua eta lurra batzean ebazan), Egipton... Erromesa jainkotasunagaz bat egiteko asmotan doa.

Hasikerako esangureagaz konaturatzen bagara, erromesa edo peregrinoia "atzeritar bat da bere herrian". Urte batzuetan lur eta herri honen seme-alaba da. Herri hau maite dau. Herri honen alde lan eta negar egingo dau. Baina harago, sakonago, gorago joateko gose-egari da. Arratiako errogatiben gure kasu honetan, helburua santutegi eta mendia doguz,aldi berean. Mendia, kristautasun aurretik be bai. Santutegia, Antonio santuen goi mendiko eleizeagaz bateatutako tokia. Arratia maitatuz eta landuz, bestelako Arratia bat eskatuz, zuzenagoa, libreagoa, solidarioagoa.

Errogatibea eta arbolea

2011ko errogatiban, Arratiako pa-



Urkiola.

goa eroan genduan Urkiolara eta landatu. Ez genkian orduan erromesaldiak eta arboleak, kultura eta mendeetan, izan daben hain lotura estu zabala.

Arbola bakotzak bere esangurea dauka. Budista eta hinduen tenpluetako pippal edo odol gorriko pikondoa emonkortasun ezaugarri da. Eskandinaviako lizar edo Yggdrasil haretza arbola mitikoa da, munduari eusten deutsana, erroak Jainkoen lurrean sartuta. Altare sintoisten ondoan landatzen dan sakaki arbolaren moduan, beti berde, beti bizi. Egiptoko sikomoroak jainkoen ziurtasuna eta babesa azaltzen dabe.

Eta kurutzea? Oso zaharra da kurutzearen ezaugarria. Badago Txinan, Egipton, Knossos-en eta Kretan. Arbolea sarritan kultugai

izan da, biziaren ezaugarria, kosmoaren irudia. Zeru lurak batzean dituana. Izaki eta gizakien joan etorri etenbakoaren sinboloa. Gizakiaren hazkundearen sinboloa.

Aurten be, Arteako herria izanik errogatibearen antolatzailea eta sakatzailea, arte landare bat eroango da Urkiolara, artea eta urkia, bailara eta mendia, egunerokotasuna eta betikotasuna, asteguna eta jaieguna buztartzearen ezaugarri moduan.

Errogatibea eta mendia

Bide guztiak helburu bat dauka. Erromesaldiak edo errogatibeak be berea dauka. Eta sarritan igoerearen irudia darabil bide horrek.

Tradizino mitiko askok erabilten dabe mendi kosmikoa. Biblian be hor doguz Tabor eta Garizim,

Siongo menditxo. Mesopotamiako ziggurat eraikinak mendia-
ren erreplikea dira.

Gurean be mendi aparteko bi doguz, geografia erlijioso, kultural eta herri desbardinaren bilgune eta helburu: Gorbeia eta Urkiola. Euskal Herrian hamaika doguz: Aralar, Arantzazu, Ainhua, Estibaliz, Begoña...

Honetan be gizateriaren iturri beretik edaten dogu. Erlijino arkaikoetan. Ekialde Hurbileko, Egiptoko edota Indiako erlijino handietan. Biblian, zer esanik be ez, zeruko Jerusalem. Islamdarrak Meka. Kristauak hamaika leku, batzuk Jesusegaz lotuta.

Urkiolan bat egiten dabe, kristautasunaren aurreko mendi eta leku sakratua, geroxeago batutako santutegiagaz.

Ganges erreka doan erromesa. Lourdesera doan erromes asko osasun bila doa, fedek erakarrita. Mekako atea zeharkatuz, erromesak kanpoan itxiko ditu jantzi zaharrak. Urkiolara heldu orduko, zapata zahar urratuak botaten ebazanak, baeukan barritasun egari bat.

Urkiolara joan eta kanpoan gertatzen danak be, egin dau bere bidea. Harriari bueltaka dabilana, giroko erlijinotasun paganoan hartzean dau parte. Santutegian eukaristia ospatzen dauanak pausu bat gehiago emon dau. Hirurak hartu dabe parte bidean, nahiz eta helburua ez izan beti bardina.

Horregaitik gagoz ondare ez material baten lekuko garrantzizko baten aurrean. Inok ez deusku gurea gordeko. Jaso eta jazo daigun!

Errogatibea eta ura

Bolandera bat jaurti eta goizeko

seiretan hasten da Dimako plazan errogatibako ibilaldia Urkiolarantz. Lehendabizi Indusira, handik Txindorretara, eta etxe bakarti handik bertara dago izen bereko iturria. Geldialdi bat ura edateko edo freskatzeko. Apurtxo bat aurrerago egingo da armozua.

Erromesaren lagun derrigorezkoa dogu ura. Bidean edo etapa baten amaieran. Neolitokoan hasi eta gaur arte, uraren gurtzaren arrastoak badaukaguz, eta kultura askotan. Iturri ongi-leak, ur mirari egileak...

Grezia klasikoan Homerok be kantau ebazan erreken dohaiak, eta ninfak nongura ageri ziran. Euskal Herrian be iturri, putzu ondoetan laminak kokatzen ziran, leku izen asko bere testigu dirala.

Gaur egun be, Ganges erreka da "Indiaren Ama". Bertan bainatzea garbitzeko bakarrik ez, bizi barrirako prestakuntzea be bada. Mekan, Harri Baltzaren ondoan dago Zamzam iturria.

Biblian putzu eta iturriak bake, poz eta argi guneak dira, ibiltari eta erromesaren lagun. Otoitzean ura eskatzen da. Eta abegikorra izan behar ura eskeiniz atzeritarri.

Urkiolara heltzerakoan jente asko hurreratzen da Santa Apoloniako iturriara, bere ermita ondoan dagoana. Haginetako gatxak kentzeako erabilten ei zan.

1.- Testu honen oinarrian, idea asko honeri zor deutsadaz: Julien Ries, *El símbolo sagrado*, Barcelona, 2013, 240-252. or.

2.- Leku arazoengaitik testu laburtua dator hemen. Oso-oso irakurteko jo www.arratia.tk webgunera.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan

BARDINTASUNA

Jaietan eraso sexistak ebitau edo erantzuna emoteko kanpainak abiatu dabez erakundeak eta eragileak

Urtero legez, jaietako sasoia hasten danean, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak eta andra taldeak eta talde feministak eraso sexistarik ez egoteko kanpainak abiatu dabez. Taberna, txosna eta beste leku batzuetan kartelak, protokoloak eta eskuorriak egongo dira. AUMk gida bi atera ditu. Bata, mutilentzako gida feministea, eta bestea, neskentzako autodefensa feministarako erispide eta aholkuak jasoten dauana.

Erredakzinoa

Herrietako andra talde eta talde feministak be egingo dabe eraso sexisten kontrako kanpainak, AUMkoa lagunduten, zein eurena propioa aurrera eroaten. Jenteak jakin dagian zelan ebitau eraso sexistak eta ikusi ezker zelan aurre egin.

Igorren eguen feministak

Helburu horregaz, "Eguen feministak" izenpean, jaiak danak ondo pasetako dirala, eta eraso sexistarik ez dabela gura konpartiduteko kanpaina egin dabe Igorren Noka eta Orratzak taldeak. Horretarako, jaiak hasi aurretiko eguenean, bagilaren 7an, kalejireia egin eben. Tabernetatik eta gazteen lokaletatik joan ziran pegatinak, kartelak eta panfletoak bananduten eta pankartak ipinten. "Prebentzinoan danok daukagulako papel bat" eta adierazoteko "zer egin behar dan eraso sexisten aurrean: ez begiratu beste alde batera, ez justifikau alkohola edo drogakaz eta abar" azaldu deutso BEGITURI Pili Alvarez Nokakoak.

Hurrengo eguenean, aprobe-txauko dabe afalaurreko poteoan parte hartzeako eta "herria feminismoz margoztuteko", kla-

rionakaz eraso sexisten kontrako aldarrikapenak idatziz.

Eguen feministen beste helburu bat Noka eta Orratzak taldeen arteko ezagutzea da.

Artean be eraso sexisten kontrako leloa egingo dabe, eta plazan, pankartak eta kartelak ipinteko asmoa agertu dau Arteako Andra Taldeak. Lemoan Harriketarrak Gazte Asanbladak eraso sexistai erantzuteko pausuak adierazoten dauan kartel bat bananduko dau, beste gauza batzuen artean. Eta beste herrietan be, hainbat eragile antolatu egingo dira jaietan eraso sexistai erantzuna emoteko.

Arratian "Eraso sexistei erantzun!"

AUMk Arratiako herri guztietan zabalduko dau bere kanpaina. Eraso sexistai zelan erantzun azalduteko, hiru pegatina eta mutil eta neskentzako eskuorriak egongo dira tabernetan, txosnetan eta testing lekuetan, hau da drogen kalidadea neurtzeko stand-etan. Gainera, Emaginek mahaiak ipiniko ditu bagilaren 29an Arantzazun, garagarilaren 28an Lemoan eta urri lehenengoaren 8an Artean. Han, aitatutako materialaz gainera, txapak, liburuak, pegatinak eta beste material batzuk be egongo

dira.

Kanpaina ez da aurten Beldur Barik ekimenaren barruan egingo momentuz geldituta dagoalako proiektua, baina sexu erasoen kontrako kanpaina egin egingo da, Emagineren eskutik, hain zuzen be.

Emagin, Euskal Herriko Bilgune Feministaren barruan dagoan formakuntzarako, dokumentazinarako eta ikerkuntzarako taldea da.

Neskentzako autodefensa eskuorria

Andrak espazio publikoan, gauean, kalean eta parranda giroan sufriduten dabezan diskriminazio egoera eta eraso sexistai aurre egiteko gida da, neska zuzendutako eskuorria. Han noz eta zelan gertatu leitezkan erasoak azalduten da eta aurre egiteko eta bortxaketak ebitetako aholkuak emoten dira, defentsarako eskubidea eta ahalmena aldarrikatuz.

AUMko telefonoa, 24 orduko Arreta Zerbitzuko eta larrialdietakoa be topau daitezke bertan.

Mutilai zuzendutako euskarri feministea

Andren kontrako indarkeria ez da andren arazoa, gizarte osoarena baino, eta gizonak be aurre egin behar deutsee jokabide eta jarkera matxistai. Mutilai zuzendutako euskarrian noz eta zelan identifikau jokabide eta jarkera horreek eta zelan egin aurre azalduten da. Berbarako, gizonen arteko alkar zuritzeko dinamikakaz apurtu beharra azaltzen da, "isiltasun paktu honeekaz amaitutea ezinbestekoa da, eraso sexisten aurka daukagun jarkerea plazartzeta". Sexualidadea modu librean bizi behar dala gogoratu arazoten deutse mutilai. Eta matxismoari aurre egiteko, burruka feministaren konplize izatea eskatzen jakie gizonai, hau da, parekidetasunaren aldeko konpromisoa hartzea. Horretarako erasoak identifiketan ikasi behar dabe eta aurre egiten hasi.



Umeak ostarku banderearen koloreakaz pintauko dabez bankuak Lemoan

Erredakzinoa

Bagilaren 28a Sexu Askatasunerako Nazinoarteko Egunaren harira, Lemoako herri udalekuetako umeak eta Gaztelekuko gazteak alkarregaz, Txoaneko parke gorrian, sei banku margotuko ditue ostarku banderearen koloreakaz.

Ekintza honegaz Lemoako Udalak sexualidadea askatasunez biziteko eskubidea aldarrikatu gura dau. Udalekuak aste horretan hasiko dira, bagilaren 25ean, eta gaia landuko dabe. "Udalekuetako umei lelo bat sortzeako proposamena luzatuko deutsegu eta egun horretan hainbat gauza egiteko txokoak sortzeako as-

moa daukagu: kamisetak, txapak, banderolak eta kartelak" azaldu deutso BEGITURI Laura Ruiz ludotekako arduradunak. Eguerdiko 12:30ean, kalejireia egingo dabe kartelak ipinten herrian.

Arratiako Udalen adierazpena

Arratiako udalerriak be aldarrikatuko dabe sexu askatasunerako eskubidea. Urtero legez, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) adierazpen instituzionala onartuko dau, bere konpromisoa berresteko.

Horrezaz gainera, udal mailan be, udal batzuek euren adierazpena onartu dabe.



BIZIKLETEA ETA TRAILA

Julen Zuberok irabazi
dau Zeberio XTrem

Erredakzioa

Julen Zuberok Aldekoa txirrindulari lemoztarrak irabazi eban Zeberio XTrem BTT lasterketa gogorra. Jon Duranak eta Erlantz Santa Maria de Unzak osatu eban podiuma.

Andrazkoetan, Iratxe Zubiare Arrigorriagako izan zan azkarrena eta Paula Serrano bigarrena.

Muturreko txirrindularitza onena dala erakusten dabil behin eta barriro Zuberok. Titan Desert lasterketan egindako erakustaldien ostean, Zeberio XTrem irabazi

dau. "Beti da plazerra entrenetan dozun lekuetatik ibiltea" dino bere Facebook-ean.

Beste sailkapenak

Lasterketa luzea, 31 kilometrokoa, Oier Leginak gizonetako eta Paula Serranok andrazkoetan irabazi eban. Lasterketa laburrak 12 kilometro izan eban eta irabazleak Unai Pagazaurtundua eta Montserrat Pelaez izan ziran. Atzenik, trail martxeari jagokonean, Julen Larruzea eta Paula Marcos izan ziran helmugara ailegau ziran lehenak.



Goiko argazkian Julen Zuberok irabazi duen Zeberio XTrem BTT lasterketa gogorra. Argazkiak: Jorge Morales Gutierrez.

TXIRRINDULARITZEA

Garrok zidarra lortu eban Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Txirrindularitza egokitutako Espainiako Txapelketa jokatu zan Villadiego (Burgos).


Oskar Garro igorretarrak parte hartu eban euskal selekzioagaz eta bere kategorian, bigarren egin eban 46 kilometro-

tako lasterketan. Aurreko egunean seigarren egin eban erlojupekoan. Espainiako Kopako bosgarren lasterketan be bigarren eban.

Oin arte egindakoaren balorazio ona egiten dau Igorrekoak, batez be Espainiako Txapelketan. "Sano garrantzitsua da bigarren postu hori, gero eta maila handiagoa da-goalako" azaldu deutso BEGITURI.

Munduko Kopa

Oskar Garroren hurrengo erronka, garagarilaren 7an, Emmen-en (Holanda) jokatuko dan Munduko Kopako bigarren lasterketa da.



AZKOREA

Iker Vicentek irabazi
dau Urrezko Aizkolarien
Banakako Txapelketa

Aitzol Atutxa eta Iker Vicente.

Argazkia: Ibon Errazu Uria.

Erredakzioa

Otsagabiako azkolariak 21 segundo aterata eutsazan Aitzol Atuxa dimozta-

rri eta honek ezin izan eban, atzen urteotan legez, txapela irabazi.

Finala bagilaren 3an jokatuzan Azpeitiko Izarraitz pelotale-

kuan. Aitzol Atutxa, Iker Vicente eta Mikel Larrañaga neurtu ziran. Egin beharreko lanak, erlojuaren kontrako proba eta egurra zutunik eta etzanda ebagiteko probak izan ziran. Iker Vicentek 24 minutu eta 44 segundo behar izan eban lanok amaituteko eta Atutxa II.ak, 25 minutu eta 5 segundo. Haren atzetik, Larrañagak 29:28ko denporea egin eban.

Atutxa txapelkunorde

Norgehiagoka estua aurreikusen zan finalerako. Aurreko urte bietan, Dimakoak irabazi eban Urrezko Aizkolarien Banakako txapela. Igaz, Atutxa izan zan txapelketa eta Vicente txapelkunorde. Baina aurten ez egoan faborito garbirik, ze oin arte Atutxak dana irabazi arren, kostau egin jakon finalerako sailkatzea.

Final ona egin eban Atutxak, behetik gora egin be, baina aurten txapela nafarrantzat izan da.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

MARATOI TXIKIA

Aldaketeak lagundu eutsen gaztetxoena i bilbidea amaituten

Erredakzinoa

Bero handia egin dau aurten Maratoi Txikiaren egunean, bero lar eta eguraldi ez aproposa galapan egiteko. Eta hori igarri eben batez be Zeanuritik Igorrerainoko ibilbi-

dea egin eben partaideak. Ha-ta guzti be, aurten Dimatik Igorrerako ibilbidearen ordez Igorretik zirkuitu laburrago bat egin behar izan dabe gaztetxoak eta ebatzi ona izan dala balorau dabe antolatzaileak.



Oin dala urte pare batetik hona, Arratiako Maratoi Txikiaren antolakuntzea, eskoletako guraso alkarteak hartu dabe eta hainbat aldaketa egin izan dabez planteamentua lehiakorra izan ez daiten eta kirolaren praktikea sustatzeko. Igaz, nobedade moduan ez zan egon umeen sailkapenik eta parte hartu eben ume guztiak izan eben saria. Aurten, horrezaz gainera, 10 eta 12 urte artekoak, exijentzia gitxiagoko ibilbidea euki dabe, ez bakarrik ume kirolarienak, baizik eta gura daben guztiak egin ahal izateko. Ondo hartutako ebatzia eretxi deusie antolakuntzakoak, batez be bero handiko edizino honetan.

Umeen partaidetzea igon egin da aurten, 300 ume baino gehiago; nagusia barriz, txikiagoa izan da.

Nagusien sailkapena

Absolutu eta beterano mailatan honeek izan ziran sailkapenak:

Absolutua

Andrak

Jessica Uriel Barrios (Amorebieta).
Miren Ozerinjuregi Uriarte (Zeanuri).
Katalin Larrakoetxea Angoitia (Zeanuri).

Gizonak

Youness Assehli (Artea).
Txomin Marañon Gorospe (Durango).
Josu Apraiz Etezarraga (Laudio).

Beteranoak

Andrak

Mari Carmen Gartzia Cano (Basauri).
Onintze Petralanda Iriondo (Igo-

rre).
Maider Intxaurreaga Uriarte (Zeanuri).

Gizonak

Sabino Uruburu Ayarzagüena (Abadiño).
Jose Lagardera Diego (Larrabetzu).
Iñaki Basterra Barrenetxea (Areatza).



Partaideak helmugara heltzean.

Arratia
Ubide eta zeberio
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be **begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Elkartea, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Zertu Kultur Elkartea,
Berrito Plaza 21, 70172 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
arratia ubide zeberio

BICIS

Arratiarron
dendea

JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

BICIS BIZI

www.bichamorebieta.com • AMOREBIETA-ETXANAO

**RUGBY
TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekoirak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

**J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK**

MOKETA • SINTASOLA • PAPERA

Elkartea, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)
TEL. 94 631 64 62 - 608 664 018

ARKITEKTO TEKNIKOA

Almudena Simarro Armero
664 763 741 - arkitektura@almuartek.com
ZEANURI

BIT (ITE), EEZ (CEE), Erredakzinoa PSS,
Oibretako segurtasun eta osasun koordinazioa

almuartek.com

Abel Lapatza Iza

Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima

946 317 252
 608 287 249

ZINEKLUBA

Andrazko biren arteko amodiozko istorioa dakar zineklubak Igorrera**Erredakzioa**

LGTBI Harrotasunaren Egunaren harira, Igorreko Zineklubak Catherine Corsini *La belle saison* filma eskeiniko dau bezperan, bagilaren 27an, 20:00etan Lasarte Aretoan.

Catherine Corsini (Dreux, 1956), zuzendari, gidoigile eta aktore frantziarrak 19 film zuzendu ditu, euretako asko amodio lesbikoa gai hartuta. *La belle saison* filmak Locarnoko zinemaldian saria jaso eban.

Sinopsia

Filma Parisen dago girotuta, 1971n eta Delphine eta Carolen arteko amodiozko istorioa kontetan dau. Delphine baseritar neska gaztea, Parisera doa familiaren menpekik iges egiteko. Carole paristarra

Manuel mutil-lagunagaz bizi da eta Mobimentu Feministaren hasikerako momentuak bizi dauz. Delpine eta Carolek alkar ezetu eta euren arteko amodioak bizitza aldatuko deutse.



SARIA

Igorreko Enara Ercillak Bizkaidatz Txikia saria irabazi dau**Erredakzioa**

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko Enara Ercilla Berrojalbiz 4. mailako ikasleak Bizkaidatz Txikia IV. Literatura saria irabazi dau. Leire Bilbao idazleak, *Munstro bat nire ispiluan* idazlanari hasikerea emon eutsan eta, 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak jarraipena eta amaierara emon behar eutsien testuari. Irabazleak tablet bat eta diplomea jaso ebazan Lorea Bilbao Euskera eta Kultura Foru Diputaduren eskutik. Ikastetxeak 150 euroko material didaktikorako opari-txartela jaso eban.



Bizkaidatz Bizkaiko Foru Aldundiak urtero antolatuten dauan ekimena da, sormen artistikoa eta kultura ekimenak bultzatzeko. "Orain zure txanda da" lelopean, ikasleak idazle ezagunak hasitako istorioai emon behar deutse amaierara. Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 4. mailako ikasleak idatzi eutsien Leire Bilbaoen testuari amaierara eskolan, "baina eskatzen ziran baldintzak kontuan hartuta, ikasle batzuen idazlanak bakarrik bialdu dira. Baldintzetako bat 4 orriko gitxiengo idaztea zan eta danak ez dira heldu kopuru horretara. Lehenengo ikasleak idatzi, eta irakasleok zuzenketak egin ondoren, lanak garbira pasau dabaz aurkeztu ahal izateko" azaldu deutso BEGITURI Belen Arregi Inazio Zubizarreta ikastetxeko 4. mailako tutoreak.

Eskolan sano pozik dagozala dino Arregik; izan be, Bizkaia mailan antolatuten dan lehiaketara da. Epaimahaiari, Leire Bilbao eta Toti Martinez de Lezea idazleak egon ziran.

ANTZERKIA

**Bagilaren 24an, Lagundu begiratzeko antzezlanak estreinauko dabe Igorren****Erredakzioa**

Igorren antzerkiaren bitartez feminismoa eta jabekuntza landuten dauan andren taldeak *Lagundu begiratzeko* lana estreinauko dau Lasarte Aretoan, bagilaren 24an 19:30ean.

Zazpi andrak osotuten dabe Konplizeak izena hartu dauan taldea eta aktore lanak egiteaz gainera, antzezlanak sortu be egingen dabe. Hau taldearen laugarren lana da eta arrakasta handia izan eben aurrekoetan.

Antzezlan honetan, egoeren itxura eta errealidadearen gaineko hausnarketa bultzatu gura dabe egileak. "Etxe bat eta terrazeta dagoz. Terrazan gauza batzuk ikusten dira eta etxean gertatu" azaldu deutse BEGITURI Konplize taldekoak.

Izena eta izana

Oingo ikasturtera arte taldeak ez eukan izenik. Igazko antzezlanak Uxue Alberdiren *Konplize ditut eta maite ditut denak* koplak ezagunak amaitu zan eta izen horretara

tik hartu eben taldearen izena.

Igorreko Emakumeen arteko topaketa interkulturaletik sortu zan oin dala hiru urte eta nortasun propioa hartu dau antzerki taldeak. Igaz arte, Miriam Herbonen laguntasun teknikoak izan eben, oingo kursoan barriz, euren kabuz ibili dira. "Bakarrik ibili gara baina Janire Lopez izan dogu kanpoko ikuskari moduan. Izan be, istorioa geuk sortu dogunez, guretzat argi egoan zer esan gura genduan, eta kanpoko bat behar genduan istorioa ulertuten dala ziurtatzeko". Zuzendari formal barik danak emoten dabe eretxia.

Laugarren lana

Lagundu begiratzeko taldeak sortu eta taularatuko dauan laugarren lana da. Lehenengoa, *Mujeres saliendo del cuento* 2016ko urtailan estreinau eben. Urte horretan urrietan, Arratiako Jabekuntza eskolako aurkezpenean, *Zer nahi dugu emakumeok* lana aurkeztu eben, eta igazko ikasturte amaieran, *Gezurretan/Contando mentiras*.

Lehenengo lanak eta igazkoak arrakasta handia izan ebela dinoe. "Errepikatzea eta zabaltzea eskatu euskuen, beste leku batzuetara eroatea". Oin arte ez dabe pausu hori emon, baina aukerea baztertu be ez dabe egin.

Marisol Calzada, Maria Jesus Guetera, Maite Intxaurre, Juanita Lizarralde, Soraya Lizundia, Maria Jesus Rezagorri eta Begoña Uriarte dira aurtengo lanaren egile eta aktoreak.

MUSEOA

Zeberioiko Udalak Errementari Museoa inaugurauko dau bagilaren 22an**Errementari Museoa.****Erredakzioa**

Bagilaren 22an, barikuan, arrastiko 18:00etan Errementari

Museoa inaugurauko dabe Zeberioiko Ermitabarri auzunean. Bertan Jose Añibarro Zeberioko atzen errementariak erabilitako

materialak egongo dira ikusgai.

Añibarro, "Paisa" ezizenagaz zan ezaguna Zeberion. Bere momentuan Udalak erosi eutsazan materialok Añibarrori eta atondu eta margotu ostean, ikusgai ipini ditu museoan. Horretarako 66.500 euro behar izan dira. Museoa udalak apartamentu turistikoaren azpikaldean daukan lokalean ipini dau. Museoaren kudeaketeaz be Udala arduratuko da.

Inaugurazioa

Inaugurazioa ekitaldian, Oier Elorduyk eta Luis Paduak errementari lanen erakustaldia egingo dabe eta bitartean, Juan Manuel Etxebarriak eta Iñaki Gartzia Uribe Zeberioko forja-lanen gaineko istorioak kontauko ditue. Gontzal Mendibil kantariaren abestiak lagunduko dabe saioa girtzen.

AGENDEA

BAGILAK 14
AREATZA

Garagarrilaren 2ra arte, Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak bialtzeko epea.

ARTEA

Hilaren 15era arte, udalekuan izena emoteko epea. Udaletxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 15era arte, sanjuanetan Play-backean parte hartzeako eta txosnan lagunduteko izen emotea liburategian.

IGORRE

Igorreko jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

LEMOA

Hilaren 22ra arte, jaietako kirol txapelketetan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik. Kiroldegian.

ZEANURI

Hilaren 24ra arte, Gorbeia Jubiladuen alkarteak antolatutako hilaren 28ko Iruñeara biajearen apunetako epea.

Bagilaren 30era arte, pisu eta etxeetako balkoieta dagozan lora txapelketarako izen emotea udaletxean.

BAGILAK 16
AREATZA

Udako igerilekuak zabalik.

Parkeak antolatuta, ibai ertzetako landaredia eta fauna ezetuteko urtekerea Orozkora, Juan Manuel Perez de Ana biologoaren laguntzeagaz.

ARRATIA

Arratiako Eleizak antolatuta, errogatibea Urkiolara. Oinez; 06:00etan, Dimako plazatik; 07:30ean, Igorreko San Antonio ermita ondotik eta Zeanuriko San Antonio txikerraren ermitaren ondotik.

LEMOA

09:00etatik 14:00etara, naturan ereitearen gaineko tailer trinkoa. Izena emoteko atzen eguna aurreko eguna. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Lemoa Txirindulari Elkarteak antolatuta, Troumouserak urtekerea.

11:00etatik 19:30era, udako igerilekuak

zabalik. Kiroldegian.

ZEANURI

20:00etan, Zeanuriko txistulari taldearen 50. urteurrenoko kontzertua frontoian. Mikel Urdangarin, Nerea Zuloaga, Esti eta Olatz, Gontzal Mendibil, Kepa Junkera, Zeanuriko korua, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Arantzabela Abesbatza, Etzanderak jantza taldea, Arantzarte jantza taldea...

ZEBERIO

07:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, zapatu-domekako urtekerea Pirinoetara. Otsogorriña (1.920 m.), Ezkaurre (2.045 m.).

BAGILAK 17
BEDIA

10:00etatik 14:00ak arte, Merkataritza, Artisautza eta Elikadura Azokea; 12:00etan, Arratia kantuz plazan; 14:00etan, Bediako jubiladuen bazkaria.

DIMA

Igitie Azokea; 13:00etan, txotxongiloak.

IGORRE

13:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua



Zeberioko Benito Lertxundiren kontzerturako sarrerak salgai

Benito Lertxundik kontzertua eskeiniko dau Zeberioko Zubialde frontoian garagarrilaren 7an, 22:00etan. Sarrerak 15 euroko prezioan salgai dagoz Zeberioko Taberna Zaharran eta udaletxean, Arteako Batzokian eta Igorreko Gau Lora tabernan.

Kantari oriotarra Ez dok Amairu taldearen sortzaileetako bat izan zan 1965ean eta 53 urte beranduago kontzertuak emoten eta aretoak beteten jarraituten dau. Diskografia oparoa dauka, 20 disko baino gehiago kalean. Atzeneneko diskoetako eta bere ibilbide osoko kantuak kantauko ditu zuzenean Lertxundik Zeberion.

Kultur Etxean.

LEMOA

10:00etatik 15:00etara, Escuderia Lancero Classic-ek antolatuta, ibilgailu klasikoek topaketea Arlonagusia plazan.

BAGILAK 18
LEMOA

11:00etatik 13:00etara, 15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, Eskulan ikastaroa, jardunaldi irekia. Elizondoko Kulturugunean.

BAGILAK 19
ARTEA

19:15ean, udalekuetarako gurasoen bilera Kultur Etxeko Areto Nagusian.

LEMOA

09:00etatik 10:30era eta 17:30etik 19:00etara, Informatika ikastaroa, jardunaldi irekia. Liburutegiko informatika gelan.

BAGILAK 20
ZEBERIO

19:30ean, Udal udalekuan egon gura daben gazteen gurasoentzako batzara udaletxean. Udalekuak Sarriako Aterpetxean izango dira bagilaren 25etik 29ra.

BAGILAK 21
ARTEA

17:00etan, ludoteka amaierako festa. Tailerrak eta puzgarriak plazan.

BEDIA

Liburutegi eta ludoteka zerbitzuak zarratu egingo dabe urri lehenengoaren 3ra arte.

BAGILAK 22
ARTEA

18:30ean, xake erakustaldia plazan.

BEDIA

Bediako Jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

LEMOA

16:00etatik 17:30era, Iluntzen Elkarateak antolatuta, umeentzako tailerrak eskolako patioan; 18:00etan, Udalak antolatuta, ikasturte amaierako festa: ikuskizuna, eskolako patioan.

ZEBERIO

18:00etan, Errementari Museorean inauruzina.

BAGILAK 23
ARANTZAZU

20:30ean, sardina jana; 22:30ean, sua.

AREATZA

Lamino Kirol Klubaren urtekerea Pagomakurre-Neberaxa-Arranbaltza (1253 m.)-Aldamin (1373 m.)-Pagomakurre.

21:00etan, sardinak eta urdaia Zubizarran; 22:15ean, Zirkozaurre konpainiaren *Akelarre* ikuskizuna plazan; 23:00etan, San Juan sua Zubizarran.

ARTEA

AKKTK antolatuta San Juan gaua Santamañen.

DIMA

Sanjuanak Oban.

IGORRE

San Juan auzunean jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

LEMOA

19:00etan, San Juan sua Tallerretan.

ZEANURI

Sanjuanak Altzuagan, ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 24
IGORRE

19:30ean, antzerkia: Konplizeak taldearen *Lagundu begirutzen* lana Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

BAGILAK 25
IGORRE

10:00etatik 15:00etara, Beharbidetako orientazio saioa Kultur Etxean.

17:30etik 20:30era, garagarrilaren 27ra

arte, asteleheneke barikura, udalekuetako berdegunean, "Parkean jolasean".

BAGILAK 27
IGORRE

20:00etan, zinekluba *La belle saison* (Catherine Corsini, 2015).

BAGILAK 28
ARANTZAZU

19:00etan, Mallabiko Jasokunde Abesbatza eta umeen abesbatzak eleizan. Lagunen artean (Mallabia) eta Maiztegi Herri Eskolearen Abesbatza (Lurreta).

DIMA

Dimako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

08:30ean, Gorbeia Jubiladuen alkarteak antolatuta, Iruñeara urtekerea.

BAGILAK 29
ARANTZAZU

Arantzazuko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

AREATZA

Garagarrilaren 1era arte, Lamino Kirol Klubaren astegoen urtekerea Pirinoetara.

ZEANURI

Sanpedroak Undurragan. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEBERIO

19:30ean, Udaleko Bardintasun Zerbitzuak antolatuta, *Burundanga ¿cuestión de género?* tailerra, Ainhoa Mailloren eskutik, udalekeko 2. solairuan. Izena aldeztu aurretik emon behar da 94 648 10 79 telefonora deituta edo *berdintasune.zeberio@bizkaia.org* helbidean.

BAGILAK 30
ARTEA

Jubiladuak antolatutako urtekerea San Vicente de la Barquera eta Soplaio kobetara. Izena bagilaren 21era arte emon daiteke udaletxean.

LEMOA

Elornigako jaiak.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, garagarrilaren 7ra arte, udako ekintza berezia.

ZEBERIO

Garagarrilaren 1era arte, Austarri Mendi Taldearen urtekerea Gorosteta-Supelegor (Arraba).

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, naruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajearen aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK

JATETXEA ALOKAIUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Tabernan

zerbitzaria behar da astegoienerako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

GELA ALOKAIUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarrilaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi *ugerka2@hotmail.com* helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baserri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxo.

Begoña Bernaola (Dima)



2 BEGITUKO kamiseta bana.


Aitziber Gondra (Bilbo)
Aritz Undurraga (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Joskileak egiten dau. Amerizioa.
2.- Zeregin, egiteko. Gaixo. 3.- Suagaz batera. Siku. 4.- Talde. Uranioa.
5.- Ontzitegia. 6.- Bokala. Beharbada.
7.- Jaurti. Oinarrizko lau odol taldeetako bat. 8.- Esne eta urunagaz egiten dan umeen janari. Abade.
9.- Litoia. Sua egiteko.

GOITIK BEHERA

1.- Txamarra. Berme. 2.- Dendua. Aditzari ohikotasun zentzua emoten deutso. 3.- Musika nota. Andrazkoen izena. 4.- Bat erromatar. Umeen berbetan, pasean. Bokala. 5.- Eiho. Zidarra. 6.- Urtaro. Bukaera.
7.- Oilojale. Adaki.



Topau aingeruen zazpi izen.



AKI MI KO

Iman Olatu



umeen moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Carre. 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 61 25

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 480 839 faxa 609 266 717

JULEN ZUBERO

"Abentura apur bat bilatzen dot, beste modu bateko lasterketak"

Txirrindularitzari lotutako familia batetik dator Julen Zubero. Aita, Luis Zubero, Zeberiokoa, profesionala iza zan Kas taldean eta familiak, Ciclos Zubero izeneko dendea eta bizikleta tailerra dauka Bilbon. Julen Zubero, hiru urtez bideko bizikletan profesionala izan ostean, mendiko bizikleteari ekin ertsan modu amateurrean eta sano marka onak lortu dauz probarik gogorrenetan. Holan, berak irabazi dau Zeberio XTrem eta etapa bat aurtengo Titan Desert-en, berbarako.

Erredakzinoa

Muturreko txirrindularitzan espezializau zara. Zeberio XTrem irabazi dozu, Titan Desert-en be bosgarren... zergaitik hartu dozu aukera hori?

Apurka-apurka izan da. Beti hasi naz bideko disziplinan eta bideko disziplina egin neban profesionala arte. Hori amaitu zanean, hasi nintzan mendiko bizikletea egiten. Apurka-apurka hasi naz karrerak egiten eta abentura apur bat gehiago bilatzen, beste modu bateko lasterketak.

Tipo honetako lasterketan be profesionalak dagoz?

Bai. Bidean moduan badago jentea dediketan dana mendiko martxak edo mendiko karrerak egiten. Nik hobby moduan har-

tzean dot. Egunero dendan egoten naz beharrean, baina gustau egiten jata eta atzenean denpora asko emoten deusat entrena-mentuari. Nik ez dot kobretan bizikletan ibilteagaitik.

Aurtengo Zeberio XTrem irabazi dozu.

Ba atzenengo momentuan ebatzi neban parte hartutea. Aurreko egunean Astorgan egon nintzan beste lasterketa baten, eta Astorgan geratuteko asmoa neukan astegoiien pasa. Baina ez nintzan oso ondo egon eta etxerantza bueltan natorrela, Zeberio XTrem-eko organizadoreari deitzea ebatzi neban ea ondino lekurik egoan preguntetako. Baegoala esan eustan eta atzenengo orduan hara joan nintzan.

Aita Zeberiokoa da eta sano harreman ona daukagu etxean

Zeberio gaz. Eta pentsau neban joan egin behar nintzala ingurua ezetuten dodalako eta gustetan jatalako. Hortik asko ibiltzen naz entrenetan. Eta egia esan, me-rezidu izan eban ze oso ondo egon zan.

Zeberio XTrem-en parte hartu dozun lehenengo aldia da?

Bai. Eta zelangoa zan ikusten joan nintzan. Erreferentzia onak neukazan. Gainera aita Zeberiokoa danez etxeko lasterketa zan eta parte hartu gura neban. Askotan ibiltzen gara urrun joaten ibilbide ederren bila ingurukoak ezetu barik.

Lupetza Zeberion eta harea Titan Desert Saharatik doan karreran. Hain desbardinak izan arren, Titan Desert-en be sano karrera ona egin dozu.

Joan nazan zazpigarren urtea da eta karrera antzekoa izaten da beti. Aurten, etapa bat irabazteko mentalizauta joan naz. Beti joaten naz asmo horregaz, eta igaz bigarren egin neban etapa baten. Gainera, gura neban etapea irabazi dot. Ondo urten jatan eta gustura nago. Azkenean faltau egin jatan zeozertxo apur bat aurrerago ibilteko. Baina gustura. Aurrean egon naz, azken egunera arte hirugarrena nintzan eta bosgarren amaitu neban. Uste dot pozik egotekoa dala.

Zelan da basamortuan bizikletan ibiltea harea gainean?

Desbardina. Gu ez gagoz ohituta horregaz terrenoagaz. Sikua da: harea eta harria eta gurean hori entrenetarik ez dago.

Bediako Txema Bautista be joaten da kamioiagaz lagunduten Titan Desert-era, ezta? Beste arratiarrik?

Bai, Bediako organizazioagaz joaten da. Kamioia eroaten dau Bartzelonara eta han bizikletak



hartu eta eroaten ditu Marokora. Eta Marokon, antolakuntzan lagunduten dau. Nik dakidala, beste arratiarrik ez da egon.

Holangoak egin ahal izateko, bizitza osoa behar izango da bizikleta gainean. Zein izan da zure ibilbidea?

Arratiako Ziklista Elkarte (AZE) hasi nintzan, bigarren urteko kadete izanda. AZEn amateurreko afizionarioa artino egon nintzan. Nire ziklista biderik kasik luzeena egin dot han. Gero beste talde potenteago batera pasau nintzan, profesional mailarako saltoa egiteko eta beste urte bi egin neban Olarra ekipoen. Hortik Orbea talde profesionalera pasau nintzan. Hor hiru urte

egin neban. Baina kontratuak amaitu egiten dira eta talde profesionalagaz batera kaminoko modalidadeari itxi neutsan. Urtebete egin neban ezer egin barik eta gero hasi nintzan mendikoa egiten. Lasterketa bat egiten hasi nintzan, gero beste bat, gero beste bat...

Etxean danok zarie txirrindulari?

Konpetizinoak egiten dauan beste ziklistarik ez dago gurean, momentu honetan. Neu baino ez. Arreba ibiltzen da bizikletan lantzean behin baina ez konpetizinoetan. Baina danok daukagu kontaktua txirrindularitzegaz dendearen bitartez. Danoi gustetan jaku bizikletea.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

